

OLATU TALKA 2018: PROPOSAMENEN DEIALDIA IREKI DA

OLATU TALKAren 2018ko edizioa dagoeneko martxan jarri da proposamenen deialdiarekin batera. Bertan aukeratutako egitasmoek **maiatzaren 25, 26 eta 27an** ospatuko den jaialdiaren bederatzigarren edizioaren programazioa osatuko dute.

Abenduaren 1etik Urtarrilaren 31 arte, parte hartu nahi duten eragile eta elkarteek haien proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte www.olatutalka.eus webgunean dagoen formularioaren bitartez.

OLATU TALKA jaialdian parte hartzen duten **eragileen profila** hiru taldetan sailkatu daiteke:

- Modu **ez-profesionalean** egindako **sormen lana erakutsi eta partekatu** nahi duten pertsonak eta elkarteak.
- OLATU TALKA ibilbide profesionalean mugarri eta **bistaratze plataforma** egokitzat jotzen duten **egile hasiberriak**.
- **Egitasmo pertsonalak** aurrera eramanean, formatu **berriekin** jokatu, diziplinarteko **sinergiak** sortu edota **baimen kudeaketa konplexua** duten guneetarako sarrera lortzeko OLATU TALKAz baliatu daitezkeen **eragile profesionalak**.

Proposamenetan **gai desberdinak** jorratu daitezke. Jarduera artistiko guztiez gain, gizarte gaiak, zientzia dibulgazioa, ingurumena, hirigintza, diseinua... proposamenaren izaera edozein dela ere koordinazio taldeak horren egingarritasuna baloratuko du azkenean aurrera eramango diren horiek aukeratzeko.

Deialdi epearen bukaeran proposamenak aurkeztu dituzten herritarrei baiezkoko zein ezezko emaitza komunikatuko zaie, eta aukeratu diren horien artean, ekoizpen lanak abiatuko dira.

OLATU TALKAREN INGURUAN

Aurten ere, **Donostia Kulturaren** eskuetan geratuko da **2016 Europako Kultur Hiriburutzaren legatu** bezala sendotu den jaialdiaren kudeaketa. 2017ko edizioaren programazioan modu aktiboan parte hartu duten 2.000 eragileek argi utzi dute herritarren OLATU TALKArekiko **inplikazio eta konpromisoa** hiriburutza urtetik harago dirauela.

Kultur jaialdien eguneko ekosisteman, OLATU TALKAren nortasun zeinu bereizgarrienak honakoak dira:

Herritarrek sortutako programazioa

OLATU TALKAren helburu nagusia **herritarrak kultur eragile bezala ahalduentzea** da, erakustaldi soila baino, sorkuntza fabrikatik gertuago dagoen eredu sustatuz. Ildo horretan, herritarrei, kontzertu baten orde, eszenatoki eta baliabide teknikoak eskaintzea edo erakusketa baten orde, mihiseak eta margoak eskaintzea hobesten du jaialdiak. Honela, dagoeneko **oinarrizko kulturaren ehundura** osatzen duten

eragileen lana **bistaratz**ez gain, **herritarren sormena, grina eta konpromisoa sustatzen da**, hiriko kultur eskaintzan, barnetik parte hartzeko aukera emanez.

OLATU TALKAK ekoizpen talde bat herritarren eskuetan jarriko du aukeratutako proposamenak bideratzeko beharrezko izango diren **baliabide tekniko eta materialez eta baimenen kudeaketaz** arduratzeko.

Kaleko jaialdia

OLATU TALKAN hiriak berebiziko papera jokutzen du. Donostiako auzo guztietako kale eta plazak kultur jardueraz betetzeaz gain, jaialdiak gunek berriak ezagutzeko, ezagunak direnetan erabilera berriak planteatzeko eta, puntu kritikoen kasuan bezala, esku-hartzeko aukera eskaini digu. Esan dezakegu, hortaz, OLATU TALKA **medio fisikoari eta guneko publikoaren modu adimentsu eta intentsibo batean erabiltzeari** oso lotua dagoela.

OLATU TALKAren xedea honela laburbildu daiteke:

Kultura, guneko publikoa eta parte hartzea integratuz “HIRIA EGIN”

HURRENGO DEIALDIAK

Aurreko edizioetan bezala, 2018ko Otsailetik aurrera eta **behin proposamenen deialdi orokorra itxi denean**, beste hiru deialdi jarriko dira martxan:

- **Kontxa Gaumarket:** Kontxako pasealekuaren azpiko boladizoan egingo den sortzaileen gaueko merkatuan parte hartzeko postuen deialdia.
- **Kontzertour:** Kontzertuen zirkuituan parte hartzeko bandei luzatutako deialdia.
- **Izarrak Plazara:** *Talent Show* bateko kategoria ezberdinetan parte hartzeko deialdia.

Hiru programa hauen oinarri eta baldintzak **2018ko otsailean** argitaratuko dira.